

## Azken prestakizunak burutzen ari dira Pakea Bizkaia Antartikara abiatu aurretik

*Lehenengo etapa honetan tripulatuzaileak Bahía Blancaraino eramango dituen zeharbidea hasteko atzerako kontaketa hasi da. Datorren igandean, urriak 7, abiatuko dira Bilboko Itsas Museotik eta hiritarrei 12.00etan deitu zaie tripulatuzaileak agurtzeko. Hau da Pakea Bizkaia gizarte hezkuntza-proiektuak egiten duen hirugarren espedizioa, 2010ean Ipar-Lurmuturrera eta 2011n Groenlandia-Ternuara joan ondoren.*

Pakea Bizkaiko tripulazioa hirugarren espediziorako prestatzen ari da. Pasta, arroza, zerealak, lekaleak, barazkiak eta esnea dira aste honetan zehar belaontzira igo dituzten elikagaietako batzuk. Ekipajea ontzian dago jada, eta Euskaltel eta K35 taldearekin azken xehetasunak lantzen ari dira lur-itsaso komunikazioak behar bezala ibili daitezen. Aurten, berri bat dago, izan ere, Pakea Bizkaia kokapen zehatza jarraitzeko aukera izango da [www.pakeabizkaia.com](http://www.pakeabizkaia.com) webgunean. Hala nola, tripulazioaren esperientziak bai webgunean, bai sare sozialetan eta bai espedizioaren blogean irakurri ahal izango dira.

Zortzi dira datorren urriaren 7an, igandean, Itsas Museotik abiatuko den belaontzian igoko diren tripulatuzaileak. Hiritarrei 12.00etan deitu zaie tripulazioa agurtzeko. Unai Basurko kapitaina, Gonzalo Terceño, bigarren kapitaina, Andrea Ruiz, Pakea Bizkaiko hezkuntza-koordinatzailea, UPV-EHUko ikasleak Toni Fiol (Menorka) eta Danel Gomendiourrutia (Bizkaia), Javier Diez argazkilaria (Bizkaia), Ane Alberdi itsas biologa (Gipuzkoa) eta Asier Hernandez irakaslea izango dira Pakea Bizkaia Antartikara eramango duen espedizioaren lehenengo etapan parte hartuko duten zorioneko pertsonak. Datozen bi hilabetetan biziko dituzten abenturekin, batez ere "ikastea" espero dute. Kanariar Uharteetan, Cabo Verde, Buenos Airesen, Necochean eta Bahía Blanca izango dituzten geldituak. Bahía Blanca tripulazioa aldatuko da eta bigarren etapari hasiera emango zaio. Abenduaren hasieran iritsiko direla aurreikusi da, hala ere, hori haizearen eta itsasoaren egoeraren arabera izango da. Belaontzia Bilbora itzulitakoan martxoan, guztira 19 pertsonen parte hartu izango dute 14.000 milia baino gehiago eginak izango dituen espedizioan.

Lehenengo etapako tripulatuzaileek UPV/EHUko Farmazia Fakultateko Elikadura eta Bromatologiako atalaren ikerketa batetan laguntzeko beharrezko frogak egin dituzte aste honetan ere. Odol, pixa, masa muskular, ur-portzentai analisiak egin dituzte, hala nola mediku historia, elikadura eta bizi-ohiturei buruzko azterketak. Bidaian zehar, hartutako elikagaien erregistroa eramango dute eta baita beste faktoreenak ere, gaixotzea adibidez. Beren gorputzaren masa muskularra eta ur portzentaia ere neurtuko dute. Hori guztia, horrelako bidai batek fisiologian eta fisiologian dituen eraginak aztertzeko izango da baliagarri eta hurrengo espedizio batetan eraman beharko luketen dieta proposatzeko aukera emango du.

### Espedizioa

Aurreko bi espedizioak ez bezala, hirugarrena Hego Hemisferiorantz nabigatuko du. Espedizioaren helburuak ondorengoak dira: euskal diasporarekin harreman berriak sortzea; Juan Sebastian Elkano, Andrés Urdaneta, Miguel Lopez de Legazpi eta bestelako marinelei omenaldia egitea eta horiek oroitzea; tripulazioak biziko dituen esperientziak lehenengo pertsonan kontatzea; eta, azkenik itsas biodibertsitatea aztertzea. Bidaia hiru fasetan egongo da banatuta. Lehenengoak, tripulazioaren 8 lagun Bahía Blancaraino eramango ditu. Bilbotik abiatuko dira, Kanariar Uharteak, Cabo Verde, Buenos Aires eta Necochea zeharkatuz. Kanariar Uharteetan belaontzia alde batetik, Kanaria Handian geldituko da. Bertan, Rafael Castillo bisitatuko dute, "La Rueda de Navegantes"-en kidea eta Unai Basurkok proiektua aurkeztuko. "La Rueda de Navegantes" munduko itsaso eta ozeanoetatik dabiltzan nabigatzaileei laguntza ematen dion



irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Horiei meteorologi informazioa ematen diete, hala nola mediku laguntza eta jarraitu beharreko ibilbide onenak aipatu, etab.

Bestetik, espedizioak Tenerifeko La Lagunako Unibertsitatea ere bisitatuko du. Gero, Cabo Verderuntz abiatuko dira, Buenos Airesera iristeko. Hiri horren bigarren sortzailea Orduñakoa izan zen: Juan de Garay (1528-1583), esploratzaile eta kolonizatzailea. Necochean tripulazioa herri horretako ikastolako lagunekin jarriko da harremanetan. Geroxeago, Bahia Blancan, Panpa eta Patagoniako lurraldeen arteko igarobidean dagoen hirian, tripulazioa aldatuko da.

Bigarren etapan, Pakea Bizkaia Valdes Penintsulara abiatuko da. Uneskok gizon-emakume guztien ondare naturalizat jo du Valdes Penintsula. Bale franko australen populazio ugaltzaile handienetakoa jasotzen du eta planetan

baleak begiztatzeko leku nagusi eta garrantzitsuenetarikotzat jotzen da. Horrez gain, beste askoren artean, izurdeak, pinguinoak, itsas elefanteak eta hainbat hegazti ikusi daitezke. Hurrengo geldialdia, Punta Arenas izango da, Magallaeseko itsasertzean kokatuta dagoen hiri txiletarra. Ondoren Ushuaia, “munduko hiririk australena”, bisitatuko dute. Bertan tripulazioa Antarktiar penintsulara saltoa emateko prestatuko da. Argentinako hiri horretan Kepa Acero surflari profesionala igoko da, Antarktiar Penintsulan olatu bat hartzeko bere “5 Mares” proiekturen barne. “5 Mares” proiektua Planetako bost itsasotan inork surfa egin ez duen olatuen bilaketa eta esplorazioaz dihardu.

Pakea Bizkaia Hornos Lurmuturra zeharkatuko du, Txileko hegoaldean. Drake igarobidearen ipar muga markatzen du. Drakek Amerika Antarktidatik banatzen du eta Ozeano Pazifikoa Atlantikoarekin batu. Urte askotan zehar Hornos Lurmuturra belaontzien ibilbideen (munduan zehar salerosketan zebiltzanak) artean mugarri nagusietako bat izan zen, nahiz eta, lurmuturraren inguruko urak nahiko arriskutsuak diren, izan ere, haizea indartsua ibiltzeaz gain, olatu eta icebergen presentzia dago ere. Panamako Kanalaren irekiera dela eta, nabigazioak behera nabarmen egin zuen. Hala ere, gaur egun oraindik, ur horietan nabigatzea erronka nautiko handizat jotzen da.

Horrela, Pakea Bizkaia Antarktiar Penintsulara iritsiko da, kontinente zuriko aberastasun biologiko handiena duen eskualdera. Tripulatuzaileek elur eta izotzez beteriko mendi paisaiak, ehundaka glaziar eta iceberg ikusiko dituzte udarako antarktiar ur hotzetan. Hegazti espezie ezberdinak itsas txakur, itsas otso, bale eta orkekin batera bizi dira habitat berean. Antarktiar Penintsulatik Pakea Bizkaia Bilborako itzulera bideari hasiera emango dio, lehendabizi Ushuaiara itzuliz. Bertan, bigarren tripulazio aldaketa egingo da.

Hirugarren etapan, belaontzia Montevideora (Uruguai) abiatuko da. Hiri horretako sortzailea Durangoko Bruno Mauricio Zabala, militar eta administratzaile koloniala izan zen. Hurrengo porturatzea Punta del Esten (Uruguai) egingo da, gero Brasilerara joateko eta azkenik Bilbora itzultzeko.

**Informazio gehiago eta elkarrizketak:**

Komunikazio Atala

Nagore Anabitarte López

Tel. 943 50 39 55/688 661 690

**Informazioa, irudiak eta bideoak:** [www.pakeabizkaia.com/ftp](http://www.pakeabizkaia.com/ftp)